

[Berria.info](#) » [Papereko Edizioa](#) » [Plaza](#)


2011-06-05

LITERATURA. LIBURU AURKEZPENAK

# Begirada bat postaleko hiriaren atzean dagoen giza egiturari

Goizalde Landabasok bazterreko pertsonaiak ardatz dituzten ipuin laburrak bildu ditu 'Bränskint' liburuan

IRUNE BERRO LARRABETZU

Turismo gidetan ageri ez den hiria, ezkutatu ohi dutena, bazterrekoa. Eta zergatik ez esan: postaleko hiriaren taupada dena, hiri gizatiarra. Halakoxea da Bränskint, Goizalde Landabasoren (Bilbo, 1970) izen bereko liburuan ageri den alegiazko hiria. Europako iparraldeko edozein herritan koka daitekeena. Klima heze eta goibelego toki horretan girotuta daude *Bränskint* liburuko ipuin laburrak. Eta bakarren bat kenduta, elkarren artean loturarik ez duten arren, bizimodu zaila daramate liburuan aurrera ageri diren istorioetako pertsonaia guztiak.



Goizalde Landabaso, atzo, Larrabetzun. / RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

Landabasok azaldu duenez, hiriaz idatzi nahi zuen hasiera batean, «eta pertsonen idazten amaitu dut». Kaso hiriak pertsonen egiten dituztelako. Ente abstraktuak ez direlako, gizakiek sortutako hezurdurak baizik, «giza oihanak».

Hiria «maite» duela dio kazetari eta idazleak. Eta inguruan sumatzen hasi zen joera batek piztu zion gaiari heltzeko interesa, «kalekumea» denez gero. «Jende bat herrietara alde egiten hasi zen umeak hazteko, hiriaren perbertsioetik ihesi edo. Baina hiria berez ez da gaiztoa; gizakia da gaiztoa edo ona». *Bränskint*-en bilduriko ipuinetan gisa horretako sentimenak errenkan datoz. «Bakardadea, mina, desesperazioa, herrimina, nostalgia...».

Nolanahi den, «itxaropen printza» bat dute ipuin guztiak. «Hiriak gauza txarrak bezala onak ere badituelako», arrazoitu du Landabasok. Liburuko ipuinak irakurtzea hirian «pasieran ibiltzea» dela dio idazleak. Eta pasieran zaudela topatzen dituzun pertsonen istorioak behatzea. «Liburuan begirada voyeurra dago. Distantziaz kontatu ditut istorioak, urrutitik begiratuta. Irakurleak izan beharko du epaile». Aritz Eigurenek «askatasun osoz» sorturiko irudiak lagungarri izango zaizkio bide horretan.

**'BRÄNSKINT'****Idazlea.** Goizalde Landabaso.**Irudigilea.** Aritz Eiguren.**Generoa.** Ipuin laburrak.**Argitaratzailea.** Txalaparta.